

9» Batasunaren, EHAKren eta ANVren aurkako sumarioa amaitu du Garzonek

14» Zugaztietako ijito familiak «jazarriak» sentitzen direla salatu du epaitegietan

Mendebaldeko Sahara →

50

■ **Preso politikoak.** Saharako Torturaren Aurkako Batzordearen arabera, 50 bat preso politiko daude egun Marokoren kontrolpeko kartzeletan. Askok urteak daramatzate epaiketaren zain, eta gehienek torturak eta tratu txarrak salatu dituzte.

Negoiazioek porrot egin dute orain arte

Bost alditan bildu dira Maroko eta Fronte Polisarioko ordezkariak. Azken elkarriketak NBEko ordezkari berezi Christopher Rossek zuzendu ditu. Baina, orain arte, ez dute urrats argirik egitea lortu Saharako galdeketa inguruan, Rabatek ez duelako onartzen autonomia ez den beste aukerarik.



Christopher Ross, NBEko ordezkaria. EFE



Seme-alabek egunero esaten didate amore emateko, baina ez naiz heriotzaren beldur»

AMINATU HAIDAR
Giza eskubideen aldeko ekintzaile sahararra

Joan Canela i Barrull Bartzelona

Nabarmen gogortu da sahararren aurkako errepresioa azken hilabete eta erdian. Egoera aztertzeke bildu berria da Bartzelonan Saharako Herriarekiko Elkartasun eta Sostengurako Europako Konferentzia, eta bertan izan da SEAD Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoko presidentea, Mohamed Abdelaziz (1948, Smara). Hark ohartarazi du Maroko ahalegintzen ari dela negoziazioetako joko arauak aldatzen.

Bost urtean Marokorekin hizketan aritu ondoren, orain ez atzera eta ez aurrera daude elkarriketak.

NBEko idazkari nagusiaren mandataria berria, Christopher Ross jauna, Saharan izan zen, eta bi aldeekin bildu zen. Hark eginiko lanei esker, goi elkarrizketa batzuk hasi ziren abuztuan Vienan, berriz ere zuzeneko negoziazioei ekin ahal izateko. Horrela iritsi zen bosgarren hizketaldia, Manhasseten (AEB). Austrian, ados jarri ziren bisita programa bat martxan jartzeko familia sahararentzat: hartara, pasabidea izango zuten Mendebaldeko Sahara bantzen duen Lotsaren Harresia alde batetik bestera joateko, baita lurretik joanda ere. Bistan denez, oso baikor ateratzen ginen bileratik, eta irudipena izan genuen diplomazia hasia zela Marokon eragina izaten.

Baina abuztutik hona gauza asko aldatu dira.

Bai, zapalkuntza asko zorrotzu da lurralde okupatuetan. Hain da bortitza, non gogora ekartzen baititu 1975ean Marokok Sahara okupatu zueneko garai tragiko haiek. Azaroaren 6an [Martxa Berdearen urteurrena], Mohamed VI.ak arrunt mintzaldi gogorra egin zuen, eta horrek ekarri du orain ez egotea abuztuan bezain baikor.

Eta, gainera, Aminetu Haidarren auzia.

Amineturi gertatu zaiona krimen barkaezina da; Marokok egin du krimen hori, eta, gainera, lortu du Espainiako Estatuarekin nahastea. Aminetu deportatu eta, nolabait esateko, bota egin dute Lanzaroteko aireportuan; bere haurrak eta familia uztera behartu dute, galarazi egin baitiote bere lurral-



HELENA OLCIVA

Mohamed Abdelaziz ◊ SEADeko presidentea

Mendebaldeko Saharan giza eskubideak babestearen ardura NBEk hartu beharko lukeela uste du Fronte Polisarioko buruak, hala «negoiazio zintzoak» egitea errazagoa litzatekeelako.

«Irtenbide demokratiko bakarra sahararrei erabakitzen uztea da»

de nazionalera itzultzea. Hori krimena da; ez du beste izenik.

Gose greba egitea haren kementaren erakusgarri da, baina oraintxe arrisku larrian jartzen ari da bere bizia; izan ere, urteetan egona da Marokoko espetxeetan, eta, horren ondorioz, ebakuntza batzuk egin behar izan dizkiote eta ahul dabil osasunez.

Zure ustez, zer egin beharko luke Espainiako Gobernuak?

Bistan da arazoa konpontzeko bidea zein den: Amineturen nahia errespetatzea eta hura bere herrialdera askatasun osoz joan ahal izatea. Eta Espainiako Go-

bernua ere ekin beharko lioke hori horrela izan dadin. Amine-tuk ez du inolako oparirik edo tratu berezirik eskatzen: familiarekin itzultzeko eskubidea besterik ez. Ezin ulertu dugu nolatan ukatzen dioten eskubide hori; beraz, gure ustez, Marokoko Gobernuarekin eta Espainiakoak dira Amineturen bizia erantzule.

Negoiazioak ez atzera ez aurrera daudenez, zertan ari zarete pentsatzen? Diplomaziaren bidez presioa egiten segituko duzue, edo gerta liteke berriz ere gerrakitea?

Ez dugu uste egoera guztiz blokeaturik dagoenik. Marokok aha-

ginak egin ditu independentzia negoziatuetatik kanpo uzteko, baina hori ez dator bat nazioarteko legediarekin, haren arabera Mendebaldeko Saharako autodeterminazio eskubidea baitu, lurralde koloniala den aldetik.

Jaso berria dugu NBEko idazkari nagusi Ban Ki-moon jaunaren gutun bat; izan ere, gutun bat idatzi genion, salatzen Marokok errepresioa jo duela eta erregearen mintzaldiaren edukia ezegokia dela. Bidali digun erantzunean, Banek azaldu du nahiago duela zuzeneko negoziazioetan segitzea, Segurtasun Kontseilu-

ren ebazpenetan oinarriturik, haiek onartzen baitute Saharako herriak baduela autodeterminazio eskubidea. Era berean, Ross jaunari eskatu dio Minursoren eginkizunak handitzeko, hartara modua izan dezan giza eskubideak babesteko, nazioarteko irizpideen arabera.

Gutun horretan, keinu positiboak izan dugu; izan ere, bertan aitorturik dago deskolonizatzeko kon-tu bat dela gatazkaren jatorria, eta, beraz, negoziatioek ere horren arabekoak izan behar dute. Segurta dezakegu Marokok huts egin duela joko arauak aldatzeko saioan.

Gure ustez, gutun horren eraginez, giza eskubideak hobeto babestu beharko lirateke lurralde okupatuetan, preso politikoak askatu egin beharko litzateke, eta Aminetuk itzuli egin beharko luke. Gainera, helburu horiek lortuko balira, errazagoa izango litzateke modua egitea negoziatioak zintzoak izan daitezkeen eta emaitza onak izan ditzaten.

Azaroaren parte bat da Espainiako eta Frantziako estatuak Marokori eman ohi dioten laguntza. Alde horretatik, zer iruditzen zaizu Zapateroren gobernuak? Ezer aldatu al du?

Ez dut iritzirik eman nahi Espainian izandako gobernuen buruz, baina argitu nahi dut Espainiaren erantzukizuna ez dela Marokori baldintzekin edo baldintzarik gabe emandako laguntzaren ondorio bakarrik; izan ere, oraindik ere, Espainia da Mendebaldeko Saharako lurraldearen administratzailea, nazioarteko legediaren arabera. Eta indar kolonial gisa segitze hori ez da aldatuko Saharako herriak libre erabakitze eskubiderik ez daukan bitartean. Beraz, Espainiako Estatuak parte hartu behar du konponbidean; orain arte, zorritzarrez, ez du asmatu horretan, ez baita ahalegin du gatazka konpontzen, nazioarteko legea betetzen dela segurturik.

Zuek diozue autodeterminazioa dela gatazka konpontzeko bide bakarra.

Kontuta da gainerako bideak probatu direla, eta ez dutela balio izan. Irtenbide demokratiko bakarra sahararrei independentzia-rena eta autonomiaren artean erabakitzen uztea da.